

Antoine Henri Becquerel

Iñaki Azkune

Fisikari frantses hau, Parisen jaio zen 1852.eko abenduaren 15ean. Familian ere fisikariak baziren. Antoine Cesar aitona, Napoleonen aginduetara borrokan egin eta Waterloo-ko porrotaren ondoren, piezoelektrizitatea, bi likidozko pila eta pila fotovoltaikoa aztertu zituen, besteak beste. Alexandre Edmond aita, fluoreszentsiaz eta fosforeszentsiaz arduratu zen. Espektroskopian plaka fotografikoak erabili zituen, erradiazio ultramoreak aztertuz.

Dena den, Antoine Henri Becquerel Eskola Politeknikoan hasi zen bere zientzi ikasketak egiten eta gero Errepide Injinerutzako eskolan eman zien jarraipena.

1892. urtean fisika-irakasle hasi zen aitaren ordezkari Parisko Historia Naturaleko Museo Nazionalean. 1894.ean Zubi eta Errepide Departamentuan injineruburu ere izendatu zuten.

Becquerel bere ikerketetan, aitaren haritik fluoreszentsia eta fosforeszentsia ikertzen ari zen, baina bere bilakaeran egitura atomikoari XIX. mendean zegoen ikuspegi irauliko zion zerbaitekin topo egin zuen.

Roentgen-ek X izpiak aurkituak zituen eta Becquerelrek substantzia fluoreszenteek izpi horiek



Antoine Henri Becquerel

igortzen zituzten ala ez egiaztatu nahi izan zuen. Roentgen-ek, izan ere, sortzen zuten fluoreszentsiagatik aurkitu baitzituen X izpiak.

1896. urtean, argazki-plaka bat paper beltzean ongi bildu eta gainean elementu kimiko fluoreszentea zuela eguzkitan utzi zuen. Eguzki-argiak fluoreszentsia sortzen bazuen eta fluoreszentsiak X izpiak bazeuzkan, izpi haiek paperan zehar plakaraino helduko ziren, nahiz eta eguzki-argia eta

argi ultramoreak iritsi ez. Becquerelrek uranil eta potasio sulfatoa erabili zituen, konposatu bat osatu eta gero bildutako plakaren gainean ipini.

Plakak atera eta erabat belatuta zeudela ikusi zuen. Erradiazioek paper beltza zeharkatu egin zuten, eta Becquerelrek X izpiak fluoreszentsiek sortzen zituztela pentsatu zuen.

Hurrengo egunetan egun hodeitsuak suertatu ziren eta Becquerel urduri zegoen. Bildutako beste plaka bat kaxoi batean utzi behar izan zuen bere kristala gainean zuela, eguraldi txarra zela eta. Egunak igarota, plaka irekitzea erabaki zuen. Eguzkitan egon ez zen arren, agian kristalak lehendik fluoreszentsia apur bat eduki eta plaka zertxobait belatuta egongo zen. Irekitakoan ordea, plaka erabat belatuta zegoela ikusi zuen. Konposatuaren erradiazioan eguzki-argiak ez zeukan zerikusirik eta, ondorioz, fluoreszentsiak ere ez.

Eguzkia alde batera utzita, erradiazio haiek X izpiak bezalakoak zirela konturatu zuen. Izan ere, materia zeharkatu egiten zuten batetik, eta airea ionizatu ere bai bestetik. Norabide guztietara zabaltzen zen etengabeko erradiazio hari, Curie andreak "erra-

SEXU-HEZKUNTZA

dioaktibitate" deitu zion 1988.ean. Dena den, urte batzuetan uranioaren erradiazioari Becquerel izpi deitu zitzaion.

1899. urtean erradiazioak eremu magnetikoaz desbideratu egin zitezkeela konturatu zen. Beraz, haietako batzuk zatiki kargatuak zirela ondorioztatu zuen. 1900. urtean, negatiboki kargatutako zatia izpi katodikoetako (J. J. Thomson-ek aurkitu zituen) elektroi azkarrak zirela proposatu zuen.



1903. urtean Fisikako Nobel saria jaso zuen Curie senar-emazteekin batera.

Erradiatutako elektroiak, uranio-atomoen barmetik igortzen ziren, 1901. urtean Becquerelek adierazi zuenez. Hura zen atomoa gauza zehatza zela eta bere barne-egitura zuela adierazten zen lehen aldia.


Bere aurkikuntzak medio, 1903. urtean Fisikako Nobel saria jaso zuen Curie senar-emazteekin batera.

1908. urtean Zientzi Akademiako idazkari izendatu zuten.

Nazioarteko Sisteman Becquerel izena erabili da erradioaktibitate-unitate gisa. Segundoko berrezko trantsizio nuklear bat gertatzeko behar den nukleoaren iharduera da.

Antoine Henri Becquerel, Le Croisic-en (Loira Beherean) hil zen 1908.eko abuztuaren 25ean. ☞

Sexu-hezkuntzarako baliabide berri eta baliotsua. Nola jaiotzen dira haurrak? Nola sortzen dira? Pubertaroan zer gertatzen da? Aurkezten dugun Sexu-hezkuntza programak, erantzun garbi eta egokiak ematen dizkie gure garapeneko uneren batean kezkatu gaituzten galderari.



Programa honek norberaren gorputza eta sexualitatea hobeto ezagutzeko balio dezake, horrela garapen egoki eta orekatuari lagunduz. Baliabide malgua da eta adin guztietan helburu desberdinez erabil daiteke.

Eskaerak eta informazioa:

Elhuyar Kultur Elkartea
Asteasuain poligonoa. 14. pabilioia
Tel. (943) 363040/363041
20170 Usurbil (Gipuzkoa)